NOTA: Presentación de prueba documental en juicio desde PSP

19 de octubre de 2026

Con la versión 6.3 de Avantius-PSP se habilita la posibilidad de presentar prueba documental directamente en el acto de la vista o juicio por parte de los profesionales (PSP) o Fiscalía (Avantius) que hasta el momento se realizaba en papel o formato físico.

La admisión o no de la prueba aportada se podrá realizar igualmente por parte de los Jueces y Magistrados durante el mismo acto de la vista.

El profesional, con carácter previo a la celebración de la vista preparará un borrador con la prueba documental que desea aportar en juicio para que, en el propio acto, pueda liberar esos documentos, aportándolos en el procedimiento para que el Juez se pronuncie sobre su admisión.

La funcionalidad únicamente está disponible para PSP Multidispositivo.

❖ ACCIÓN DE ENVÍO DESDE PSP Y ROLES HABILITADOS

En primer lugar, se ha habilitado una nueva modalidad de envío de escrito llamada "Prueba documental en juicio".

Esta acción va a estar disponible en el detalle de las notificaciones y en el detalle de los expedientes.




Ilustración 1. Acceso a borrador de envío de prueba documental

Esto es así, habida cuenta de que la aportación de prueba documental se realiza en el marco de un señalamiento. De esta forma, el profesional podrá preparar la aportación de la prueba tanto desde la notificación del señalamiento, como accediendo al detalle del expediente directamente.


Este nuevo envío está configurado para abogados, representantes colectivos) y procuradores.

❖ BORRADOR Y ENVÍO DE PRUEBA DOCUMENTAL

Una vez seleccionada la opción de envío de prueba documental, se abrirá un borrador del envío similar al de otros envíos de escritos desde PSP.

En primer lugar, se cargarán los datos del expediente asociado y se deberá seleccionar el interviniente al que representa el profesional sobre el que se quiere presentar la prueba documental, en caso de que representara a varios. En caso de representar a un único interviniente, este se cargar por defecto.

Una vez seleccionado un interviniente y añadido un título, se permitirá el guardado del borrador de prueba documental sin necesidad, de momento, de incorporar documentación anexa.



Los borradores se podrán liberar mediante el botón "Envío" y quedarán asociados al expediente por medio de un visor documental

En el apartado de Documentación anexa digital, el profesional podrá ir aportando los distintos documentos que integren la prueba que quiera presentar, indicando la categoría de los mismos.

Asimismo, se incluye la opción "Generar de forma automática la minuta de prueba" marcado por defecto como "Si", pero pudiendo deseleccionarse.

Se dispone también de la opción de incluir documentación física y de generar un acuse de la presentación.

Cada documento, salvo la minuta de prueba documental, incluirá un icono con el estado del documento para poder identificar claramente si ha sido admitido, inadmitido o está pendiente de pronunciamiento por parte del Juez.

OHARRA: Epaiketan froga dokumentala PSP bidez aurkeztea

2026ko urriaren 19a

Avantius-PSP aplikazioaren 6.3 bertsioarekin, froga dokumentala epaiketaren edo judizioaren ekitaldian bertan zuzenean aurkezteko aukera gaitzen da profesionalentzat (PSP bidez) eta Fiskaltzarentzat (Avantius bidez). Orain arte, froga hori paperean edo euskarri fisikoan aurkezten zen.

Aurkeztutako froga onartzea edo ez onartzea epaileek eta magistratuek erabaki ahal izango dute, halaber, bista-ekitaldian bertan.


Profesionalak, bista egin aurretik, epaiketan aurkeztu asmo duen froga dokumentala jasotzen duen zirriborroa prestatuko du. Horrela, bista-ekitaldian bertan, dokumentuak behin betiko aurkeztu ahal izango ditu, prozedurari eransteko eta epaileak horien onargarritasunari buruzko erabakia har dezan.

Funtzionalitate hau "PSP Multidispositivo" aplikazioan baino ez dago erabilgarri.

❖ BIDALKETA-EKINTZA PSP-TIK ETA GAITUTAKO ROLAK

Lehenik eta behin, idazkiak bidaltzeko modalitate berri bat gaitu da, «Epaiketako froga dokumentala» izenekoa.

Ekintza hori jakinarazpenen xehetasunetan eta espedienteen xehetasunetan egongo da erabilgarri.



1. irudia. Froga dokumentala bidaltzeko zirriborrorako sarbidea

Hala ezarri da, froga dokumentala aurkeztea seinalamendu baten esparruan egiten baita. Horrela, profesionalak froga aurkezteko prestaketa egin ahal izango du, bai seinalamenduaren jakinarazpenetik abiatuta, bai zuzenean espedientearen xehetasunetara sartuta.


Bidalketa-modalitate berri hau, PSP aplikazioan gaituta dago abokatuentzat, ordezkaritza kolektiboko profesionalentzat eta prokuradoreentzat.

❖ FROGA DOKUMENTALA BIDALTZEKO ZIRRIBORROA ETA BIDALKETA

Froga dokumentala bidaltzeko aukera hautatu ondoren, bidalketaren zirriborro bat irekiko da, PSPtik idazkiak bidaltzeko gainerako zirriborroen antzekoa.

Lehenik eta behin, dagokion espedientearen datuak kargatuko dira, eta profesionalak froga dokumentala aurkeztu nahi dion ordezkatuaren esku-hartzailea hautatu beharko du, profesionalak esku-hartzaile bat baino gehiago ordezkatzen baditu. Esku-hartzaile bakarra ordezkatzekotan, hura lehenespenez kargatuko da.

Esku-hartzailea hautatu eta izenburu bat gehitu ondoren, froga dokumentala bidaltzeko zirriborroa gordetzeko aukera emango da, oraingoz eranskinik gehitu beharrik izan gabe.



Zirriborroak «Bidali» botoiaren bidez bidali ahal izango dira, eta espedienteari lotuta geratuko dira dokumentuen bistaratzaile baten bidez.

«Dokumentazio digital erantsia» atalean, profesionalak aurkeztu nahi duen froga osatzen duten dokumentuak gehitu ahal izango ditu, bakoitzaren kategoria zehaztuta.

Halaber, «Froga-minuta automatikoki sortu» aukera jasotzen da. Lehenespenez, «Bai» hautatuta agertuko da, baina aukera hori desautatu ahal izango da.

Dokumentazio fisikoa sartzeko eta aurkezpenaren hartu-agiria sortzeko aukerak ere badaude.

Dokumentu bakoitzak, froga dokumentalaren minutak izan ezik, ikono bat izango du dokumentuaren egoera adierazteko. Horrela, argi eta garbi identifikatu ahal izango da dokumentua onartuta dagoen, ezetsia izan den edo epaileak horri buruzko erabakia hartu gabe duen.